

CORNELIUS CASTORIADIS
LO QUE HACE A GRECIA (De Homero a Heráclito)

Castoriadis-en testua 1970-1980 ingurukoa da, 1982-1983ko seminarioetarako baliatu zuena. Bere lezioak demokraziaren jenesia eta filosofia politikoaren ingurukoa izan zen, eta landuko den testua bere seminarioen lehengo zatiari dagokio.

LABURPENA:

Ordura arte ez zen benetazko pentsamendu politikorik egon, soilik benetako jardura politikoa. Pentsamendu politiko hori filosofia politikoa zen, hau da filosofiaren zati bat, eta honi subordinatzen zaiona. Politikatzat Castoriadisek ulertzen du gizartearen instituzioen inguruko jardura zentzuzkoa, soilik zentzuzko jardura den heinean duenean zentzua.

Filosofia Grezian jaio zen, mugimendu politiko esplizitu edo demokratikoarekin. Biak garaiko gizarteko imaginarioari loturik. Horregatik, beraien aztergaia instituzioak eta honen relatibizazioa ziren, *doxa* eta *nomosaren* ondorioz. Honek harreman zuzena zuen garaiko Greziako imaginarioarekin eta mundua ulertzeko erarekin, eta horrelakoa zen horra izatea utzi zutelako. Esaterako, jainkoak antropomorfitikoa ziren, hori sortu zutenak gizakiak zirelako, eta horrela bakarrik hartzen zuen zentzua.

Jenofanesek esan bezala, aparientzia eta izatea, iritzia eta egiaren arteko dilema horrek ez zuen soilik eragiten indibiduoetan, gizartera hedatzen zen. Greziako iritzi konjuntioak azken finean ere *nomos* edo konbentzionalak ziren, eta hau onartzeak aurreko tradizioarekin apurketa suposatzen zuen. Legea horrela erabaki delako da legea, baina beste bat izan zitekeen, aurretik azaldutakoagatik. Horrela gizartek gizartea sortzen dute, existitzen den amildegia hori izkutatzeke nahiarekin.

Hala ere, *physisak* bere garrantzia zuen, hau da, armonia natural baten existentziak. Ondorioz, artifiziala zena naturaren parte eta beharrezko bihurtzen zen.

Imajinario edo iruditegi kolektiboaren bidez kolektiboa eta indibiduaren bidea eta baloreak ezartzen dira, eta hauek eztabaidaezinak bihurtzen dira, horrela instituzioen zergatia galdetzen ez delarik.

Apurketa hau Grezian ematen da, nolabait historia unibertsala bertan jarri zelako martxan mugimendu politikoaren bidez, eta instituzio eta politikaren transformazio kontziente bat ematen hasi zelako. Greziarrak kontziente izan ziren abismoaren existentziaz. Honekin beraien instituzioak "beraien instituzioak" zirela ikusi zuten, konponente erlatibo, arbitrario eta konbentzionala onartuz.

Kultura grekoa ezin da ulertu tragediak kontuan hartzen ez badira, honi loturik zentzugabekeriaren eta ez izatearen ulerkera zegoen, hau gako fundamentalak izanik auzi hau ulertzeko. Garrantzi handiarekin jainko grekoak ditugu, hilkorrek ez diren arren, ez direnak betierekoak. Horrela osatuz neurri batean beraien munduaren ulerkera.

Mitologia grekoa aipatzea ere ezinbestekoa da, hemen islatzen baida aurretik aipatutako munduaren ulerkera unibertsal hori.

Physis-nomos, doxa-egia, eta instituzio eta legeen gaineko ikuspuntu berri honek, instituzio eta legeen inguruko galderak sortzea ekarri zuen (zer dira legeak? Zer dira lege onak?...).

Hemen kokatzen da filosofia, honen arrazoiketari esker eta honen bidez ematen delako tradizioarekiko zalantza hau. Eta hemen kokatzen da Atenaseko demokrazia, eman zenerako bi mende ingurutako borroka zegoelako atzetik. Horrek esan nahi du, aurreko oligarkia tradizionala zalantzan jarri eta honen aurka egin zela, filosofia faktiko bat emanez.

Polisa aldatzeko, *demosak logosa* sortu behar du denarekiko (berekiko ere) kritika egiteko. Horretarako ezinbestekoa izan behar da eremu publiko eta komun bat sortzea, iritzi, argudiaketa eta kontrargudiaketak lekua duen, berdintasun eta askatasuna oinarritzko izanik. Espazio hauek egia, konfrontazioa eta errealitatearen azterketa dute helburu. Hau horrela izan ez balitz benetako filosofia ez zen posible izango. Ekintza politiko honek pentsamenduaren garapena du atzean, eta honek bere osotasunean aldaketa historiko garrantzitsua suposatu zuen. Honen gailentzia Atenseko demokrazian eman zen. Azken finean demokrazia *hybris*arekin amaitzeko nahiaren erantzun bat zen.

Peloponesoko gerran, *hybris*aren ondorioz Atenasek gerra zuen, honek demokraziaren porrot historikoa suposatu zuen, ondorio historiko handiak utziz. Platon izan zen filosofia politiko kontziente eta garatua egiten lehena, eta bere pentsamendua eta filosofia politikoa Atenaseko demokraziaren porrot honen ondorio dira. Platonek Atenaseko demokrazia kondenatu zuen, bere porrotatik eta bere porrotaren ondorioz, honek Platonen osteko filosofia politikoan eraginez. Platonenekin hasiko zen filosofia politikoa ez zen dagoeneko pentsamendu politikoa, honetatik kanpo kokatzen baita.

Honen atzean dagoena, eta hau ondo ulertzeko ezinbestekoa dena, aurretik aipatutako grekoen mundu imaginarioa da; identita esentzial bat dagoelako mundu imaginario eta jarduera politikoaren artean. Mundua kaosa bailitzan ulertzen dute, eta arrazoia bilatu behar da horregatik. *Hybris*aren aurka eginda lortuko da *paideia* grekoa.

Egia hauetan oinarritzen zen mundu grekoa VII.mendetik aurrera: legeen beharra dago, eta legeak beti jarri behar dira zalantzan; legeak zalantzan jartzearen ondorioz beti dago aukera legeak aldatzeko ekintzak eman daitezten. Gizakiak legeak behar ditu, esan bezala, eta hau *polis*aren forman ulertzen zuten grekoek, baina hau ezin da ulertu *logosa* gabe: *logosa* soilik *polisean* eman daitekeelako, eta *logosik* gabe *polisik* ere ez dagoelako.

Demokraziaren sorrerak eta honen garai bateko garaipenak ireki zizkion ateak guztiz instituzio eta legeen inguruko problematika guzti honi. Demokrazian herria zen instituzioetan parte-hartzailea zena, eta ez zegoen arazorik hauen inguruan eztabaidatzeko edo hauek aldatzeko; onartzen zuten lege eta instituzioak ez zeudela ezerk determinatuta, demokraziak berak hartzen zituen bere erabaki propioak, beti ere ezarritako justizia edo legeen barruan.

Demokraziak bere izategatik ezaugarri hauek ditu: akatsak egiteko arriskua du bere ekintzen bidez; erregimen mota bakarra da gizarteak beti ditzakeen mugak zehazten dituen, azken finean bere buruari jartzen baidizkio mugak; lehen esan bezala espazio publiko erreal bat du hiritarren interesei erantzuten diena. Horrelakoa zen Atenaseko demokrazia zuzena deritzona, lege jainkotiar, natural edo razionalak ezin ziren kokatu inolaz ere gizartearen legeen gainetik: herriak sortzen zuen legea. Egungo ordezkartzeko demokraziak ez du honekin zerikusirik, esan daiteke demokrazia beraren ukapena ere badela, eta guztiz mistifikatuta ematen dena.

Platonek ere onartzen zuen Atenaseko demokraziaren hasierako handitasuna, *dike* eta *aidósa* gailentzen zenean. Baina demokraziak noski ezin du bermatu betiereko arrakasta, eta *hybris*arekiko beti gailentzea. Horregatik erori zen demokrazia. Porrot honek ematen zuen herria ez zela gai bere instituzio eta legeak egiteko, ezta bere burua ondo gobernatzeko. Azken finean Atenaseko demokraziari ere tragedia hau gertatu zitzaion. Honen eragina Aristotelen, baina bereziki eta era oso handian nabari da Platonen. Platon hein batean Sokratesengandik aldendu zen, esaterako bizitza politikotik edo *agoratik* urrunduz, eta bere Akademia itxia sortuz... Baina beste hein handi batean bere pausuei jarraitu zien, Sokratesek egiten zuen bezala *doxaren* aurka eginez eta hau gailentzeko alegen konstantea eginez. Hemendik, eta Sokratesen tragediak asko ikututa, garatu zuen bere pentsamendu filosofikoa.